

Energiaren krisia, aldaketa klimatikoa: 25 galdera, geroa hobeki prestatzeko

Helburuak:

Gure buruen gainean zinezko mehatxua badugu, egiazko bonba bat, klimatikoa, atzetik aurrerako kondaketa seriooki abiatua duena. GIEC/KAGA Klima aldaketari buruzko gobernu-arteke aditu taldearen datorren txostenarentzat (2013ko udazkeneko aurreikusia dena) frantses talde zientifikoek egin azken simulazioek baieztatzen dituzte Energiaren Nazioarteko Agentziaren edo Munduko Meteorologiaren Erakundeak egin aitzineko txostenak:

Argiki eta segurtasun osoz baieztatzen dute klimak geroan gaitzeko kolpe bat jasanen duela sekulan ez badira segidan neurri erradikal batzuk hartzen oraindik berotegi efektuko gasen isurketaren murrizteko. Lur azaleko batazbesteko tenperatura igoko da 3,5 edo 5°C-z gaur eta 21. mende bukaera artean. Zonbait graduko tarte hori da hain xuxen gaur eta azken glaziar aroaren maximoaren arteko diferentzia (jakinez tarte hori betea izan dela... 10 000 urtez!). Planetaren geografia eraldatua litaikete abiadura eta molde handi batean. Ondorioz lurrean ekonomiak, elikagai baliabideak eta bizi baldintza zibilizatuak errotik aldatuak litaizke, eta segurrenik ere atzera biderik gabeko moldean.

«**Gure etxea sutan da eta beste norabait so egiten dugu!**». 2012ko ekainaren 15etik 23rat, Rion, ingurumen eta sozial justiziaren aldeko populuen gailurrak, mobilizazio memento garrantzitsu bat ahalbidetuko du, mundu osoan zehar bai eta Euskal Herrian ere, murruari buruz doan lasterketa honi aski dela erraiteko.

Konduan hartuz, 1992an, Rioko Lehen Gailurraren kariatarat, kontzientzia hartzen ginuela baitezpadakoa zela gure berotegi efektuko gasen (BEG) isurketen murriztea sekulan nahi baldin baginuen kontrolez kanpoko klima uzkailetea saihestu datozen hamarkadetan, azken finean, eta praktikoki, garai hartarik geroz BEG isurketak %30ez goititu dira!

Nazioarteko zientifikoek komunitateak erraiten digu gobernuak, enpresek eta herritarrek planetaren gero klimatikoa aldatzen ahal dutela, gaurdanik hautu batzuk eginez. Baina abisatzen gaitu ere: gaurdanik hasiz eta 2020a arte ez badugu lortzen BEG isurketen tendentzia aldatzea, orduan berantegi izanen da hondamenaren saihesteko. Ikerketa lan berriek + 2°C emendatzea bezalako posibilitate beldurgarria gertatzen ahal dela erakusten dute, horrek jada 2050 urtetik goiti klima aldaketa ezin kontrolatuzkoa eta atzerabiderik gabekoa ahalbidetuko duelarik.

- 1) **2100 urtea epe gisa hartuz, lur azaleko batazbesteko tenperaturaren mugatzea (aurre-industria aroarekiko (1850) zer helburu zehatzekin definitzearen alde zinateke (Celsius gradutan)?**
- 2) **Helburu horren lortzea gauzatzeko, berotegi efektuko gasen isurketa mugatzeko zoin helburu finkatu behar litaizke Frantses Estatuan, eta Europar Batasunan defendiatu (1990 urtea erreferentzia gisa erabiliz) :**

- **2020 urtea muga gisa hartuz:**
- **2050 urtea muga gisa hartuz:**

Baliabideak :

I) Klima energia zerga (KEZ) baten plantatzea:

Gisa hortako zerga batek prezio bat emanen lioke berotegi efektuzko gasen (BEG) isurketei, eta emeki-emeki -bakotxari egokitzeko ahala eskainiz- BEGak isurtzen dituzten modelo handienak gogogabetuko lituzke.

Zerga horren bidez bildu sosak, biztanle pobreenak, hots krisi energetikoaren lehen biktimak lagunduko lituzke eta ber denboran garraio, etxebizitza, laborantza, energia murrizketa politika orokorrak, energia efikazia politikak, ekoizpen sistema politikak eta lurralde antolaketa mailan trantsizio energetikoen politikak diruztatzen ahal lituzke.

Quinet txostenak aholkatzen duen heinean finkatua izanen litaik zerga hori, hots 36 eta 37 euroren artean tonaka 2012an, ondoko urteetan %5az emendatuko litaik 2009ko uztailean Rocard txostenak atxiki zuen ibilbidea segituz (hastapeneko tasa bederen 100 euro tonaka izaitaren alde da Bizi!, hots Suedian 2009an CO₂-ari aplikatua zitzaion zergaren tasa bezala, herri hortan klima energia zerga mota bat plantan emana dute 1991a geroztik).

Elektrizitate kontsumoa sartuko litzateke zergan. Berotegi efektuzko gas guziak konduhan hartuko lituzke. Ez litaik salbuespenik izanen eta jadanik existitzen diren beste zergak ez litaizke apalduak izanen. Energia murrizketak egiten edo egiten entseatzen direnek zergaren bidez bildu sosaren zati bat erabiltzen ahalko dute.

3) Frantzia mailan gisa hortako klima energia zerga baten plantatzearen alde zirea?

- Bai
 Ez
 Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....

Oharrak :.....

.....
.....

II) Nuklearretik pixkanakako ateratze osoaren aldeko lege baten onartzea:

Energia nuklearra ez da alternatiba bideragarria karbono energien (petrolio, gas, ikatz) ondoan. Atomoaren teknologiar lotuak diren lanjerrei (istripuak, ugaritze nuklearra), gehitu behar zaio sortzen dituen hondakinak ez dakizkigula tratatzen eta egiazko bonbak izaiten ahal direla. Frantziak ez du uraniorik ekoizten, artetik erraiteko uranioa ez da baliabide berriztagarria eta mugatua da, eta beraz bere hornikuntza iturrien menpeko da. Energia mota biziki garestia da bere gastu guziak kondatuak direlarik (ikerketa, hondakinen tratatzea, desmuntaketa).

Arrisku guziak konduhan hartuko dituen ikerketa batek aginduko du zoin egitura hetsi beharko den lehentasunez, erreaktoreen adina (30urtetik gora hestea), egoera (gune sismikoak edo uholdeen guneak), ondo-ondoan izaiten ahal diren beste industria lanjerosak, inguruetak biztanleriaren dentsitatea konduhan hartuz. Nuklearretik ateratzea, energia fosilak erabili gabe egin beharko da hemendik 2033 urtera, Negawatt egitasmoak proposatzen duen bezala.

EDF-en ikerketa publikoen eta inbertsioen dirua (Estatua akziodun nagusia delarik) berehala berriz igorria izanen litaik efikazia energetikoaren garapenerako, energia murrizketa politiketarako eta energia berriztagarrien garapenerako.

4) Nuklearretik pixkanaka eta osoki ateratzeko gisa hortako lege baten onartzearen alde zirea?

Bai

Ez

Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....

Oharrak :.....

.....
.....

5) Prest zintaizkea Espainiako gobernamentuari galdegitea, nahiz eta zaharkitua den eta istripu andana bat ukan duen, 2019a arte idekirik atxiki nahi duen Garoñako zentrala hets dezan?

Bai

Ez

Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....

Oharrak :.....

.....
.....

(Xori hegaldi bat eginez, Hendaiatik 140 kilometrorat kokatua den zentrala da. 1966 eta 1970 urteen artean eraikia izan da, Fukushimakoaren idurikoa, Fessenheimekoa baino zaharragoa da. Euskadiko gobernua ofizialki galdegin du horren hestea 2009ko ekainaren 12an).

III) Iparraldea trantsizio energetikoaren bihotzean kokatu:

Iparraldea (hego Landesekin arlo batzuetarako) biztanleek egiten dituzten aktibitate gehien maila edo eremua da. Maila hortan da jokatzeko eguneroko biziarentzat ontasun eta zerbitzuak, bizi koadroaren kontzeptioa, entretenimendua eta eboluzioa, etab. Hein hortako lurraldean dira neurtu behar energia kontsumoak eta beroketa efektuzko gasak, energia kontsumitzearen ekonomia iturriak eta energia berriztagarrien garapen ahalak ikertu, eragileak mobilizatu eta erantzun egokiak eman.

Hautatua baldin bazira 2012ko ekainean:

6) Iparralde mailan Klima Energia Lurralde Plan baten lantzea lagunduko zinueka?

Bai

Ez

Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....

Oharrak :.....

.....
.....

Ondokoaz ari gira :

- egoeraren azterketa zehatz bat egin (energia kontsumoak, BEG-en isurtzeak) bere ondarearen elementu bakoitzarentzat;
- lurralde egoera azterketa bat egin bizi eremu bakoitzean ;
- klima energia plana plantan eman kolektibitateentzat lurralde animazioak pentsatuz (baita barnekaldeko lurraldeentzat ere) ;
- bere ekintza planen segitzea eta ebaluazioa segurtatzea jarraipen orri baten bidez emaitzak argitaratuz eta eguneratuz.

7) Trantsizio Energetikoaren Behatoki baten plantan ezartzea lagunduko zinueka?

- Bai
 Ez
 Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....

Oharrak :.....

.....

.....

Behatoki horrek, axola duten Iparraldeko eragile guziak bilduko lituzke energia menperatzeko politikak bideratzeko, berotegi efektuzko gasen isurketak murrizteko (lurralde antolaketa eta urbanismoa konduetan hartuz) eta energia berriztagarrien garatzeko beharrezkoak diren datu eta zenbaki guziak bilduz; Iparraldea mugaz gaindiko (hegoaldearekin), Frantziarekin, Europarekin eta munduarekin dituen harremanen erdian kokatuz beti.

IV) Jadanik xutik diren eraikinei eraberritze termiko eginbehar bat ezarri:

Frantzian eraikinak GES isurketen %20aren eta energia kontsumoaren %44aren erantzuleak dira. Bataz beste etxebizitzaren kontsumoa, urteka 250 kWhep/m²koa da, eta %70 berokuntzari lotua da. Lehenagoko etxebizitzaren zaharberitze-tasa oso apala da (%1 inguru urtero). Horregatik, sail hortako berotegi-efektuzko gasak murrizteko, funtsezko eginahalak xutik diren eraikinetan eman behar dira.

Etxebizitza-parke osoaren berritzeko jadanik diren mekanismo bultzagarriak ez dira aski izanen (BEZ tasa guttitua, eko-mailegu zero tasakoa, zerga-kreditu...). Gainera, eraikin horien zaharberitzea osoki eta ongi egitea garrantzitsua da energi-aurrezte kopuru horren optimizatzeko.

Ondorioz, xutik diren eraikinen (egoiliar, hirugarren sektore) zaharberitzeko obligazio xorrotx bat plantan ezarri behar da, denboran planifikatua. Neurri horrekin, etxegintzan ari diren langileentzako (BTPko artisauak, ingeniari, arkitekto) formakuntza programa handi bat beharko da, sail horretako sare profesionalak egituratu eta indartu behar baitira.

Honela, lekuz aldatzen ahal ez diren enpleguak sortuko dira.

Klima-Energia Ekarpen horren parte bat berrikuntza horien diruztatzeko baliatua izanen da, besteak beste egungo egunean energia-prekaritatean diren familientzako (abantzu %15), eta finantza-dispositibo berritzaile batzuekiko, eta energia-aurrezteek ematen duten irabazpideei esker (hastapeneko inbertsioa ordainduz).

8) Etxeetan urtekako 80 kWhep/m² ozka lortzeko (gune klimatikoa eta goieraren arabera) xutik den etxebizitza-parkeari buruzko arraberritze termiko obligazio baten alde al zara ?

Hirugarren sektore publiko eta pribatuaren lehen-energia kontsumoaren %40ez murrizteko erreferentziako kontsumoa hartuz, hemendik 2020. urtera eta hortarako lehentasunez eraikin kontsumitzaileen zaharberituz

- Bai
 Ez
 Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....

Oharrak :.....

.....

.....

9) Etxebizitza sozialaren mailan existitzen diren dispositiboen azkartzearen alde al zara ?

Bai

Ez

Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....

Oharrak :.....

.....

(berrikuntza energetikoaren obligazioaren inskripzioa Estatua eta sozial kudeatzailearen arteko hitzarmenean, alokatzaileari dagozkion hobetze lanen kariatat ; errentariaren parte-hartzearen kariatat berriketa energetiko lanen ondoko kargu ekonomien partekatzean ; etxebizitza sozialaren eko-maileguaren mantentzea eta eraginkortasun energetikoan 80 (eta ez 150 kWhep/m2/urtean gaur egun den bezala) lortzea. Horrek erran nahi du delako « Grenelle 1 » legeak zaharberritu behar dituen 800 000 etxebizitza sozialen energia kontsumoaren beheitzeta 80 kWhep/m2/urtean mailarat eramane behar dela hemendik 2020. urtera arte eta ez 150erat, aurre ikusia zen bezala.

V) Karbono eta energia kontsumo mailan mugatua litaiken garraioaren azpiegitura eskema baten plantan ezartzea:

Garraioen sektoreak Frantses estatuan berotegi efektuko gasen isurketa mailan lehen postua okupatzen du (%27arekin). Duela hainbat hamarkada auto eta autobideetako garraioa beti gorantz doa! Diren garraio molde ezberdinen artean, bideak, garraioaren sektorean kontsumitzen den energiaren %94aren ardurabada.

Ingurumenaren Grenelle-ak helburu gisa pausatu du BEG isurketa %20ez ttipituzer garraioaren sektorean hemendik 2020a arte (1990eko isurketaren heinerat berriz etortzeko). Merkantzien garraioari dagokionez, Grenelle 1 legeak aitzin-ikusten du bidez eta hegazkinez kanpoko medioen garrantzia %14etik (2006an) %25era pasatzea 2022ko. Tamalez, 2006tik geroz, handitzeko ordez, trenbide eta urbideetako garraioaren garrantzia ttipituz doa 2010an %11koa delarik! Garraioen sistema molde orokorrean behar da aldatu, bere euskarritik hasiz: azpiegituratarik.

Alabainan, gaur egun hautatzen diren azpiegiturak biharko mugimendu edo zirkulazio handizki finkatzen dute. Bide baten biziraupena estimatua da 50 bat urterentzat guttienez...

Edozoin bide edo aireportu azpiegiturak berekin dakar garraio edo zirkulazio handitzea eta horrek, epe luzean eta ororen buru, berotegi efektuko gasen isurketa handia sortzen du.

Grenelle-ak ofizializatu du SNIT/GAEN (Garraioen Azpiegituren Eskema Nazional) baten lantzea. Horrek egiazko haustura bat behar zuen proposatu. Haatik, GAEN-aren aurreproiektuak argiki erakusten ditu 1 000 km pasa bide! Horrek Frantzian zinezko bide/autopista berrabiatze programa baten itxura du. Notre Dame des Landes-en aireportu berri baten proiektua ere GAEN-aren barnean da. Ber denboran, trenbideetako garraioaren goi mailako gogoeta bilerak gomendatzen du 1 400 km trenbide behar direla hetsi, omen pertsonen garraioari lotuak zirela eta ez zirela "errentagarriak". Hautu horiek Frantziak finkatu helburuekin kontraerranean dira. Ondorioz, GAEN horren sakonki berrikustea biziki inportantea da!

10) Karbono eta energia mailan mugatua litaiken garraio eskema nazional baten azpiegitura baten alde zintaie, jakinez horrek galdatuko lukeela:

- a. **Auto, autopista eta aireportu proiektuen saihestea.** Beren ondorio ekologikoetarik at, GAENeko bide eta aireportu proiektuek kostu handia dute eta baliogabekoa, jakinez badirela alternatibak ia kasu guzietan. Ondorioz, baztertu behar dira: *Frantziak autopista metro/biztanleka arloan %41ez gaintzen du jada Europaren batz bestea.*

- b. Jadanik diren sareen erabiltzeari lehentasuna emaiten dion hirien arteko sare nazional baten sortzea**
Mukuru beteak diren ibilbide gutti batzuen ganean trenbidezko garraioen kontzentrazioaren ondorioz lurraldearen parte handi bat utzia da zerbitzu eskasekin, maiztasun guttiko eta egoera gero eta kaskarragoko bideekin. Beharrezkoa da trenbideen sarearen bilakaeraren berriz pentsatzea, haren modernizatzea eta osatzea. Lurralde osoan trenbide sarearen antolaketa fina eta homogenea behar da segurtatu, hiri handien arteko lotura beti Parisetik pasatuz egin nahi duen "dena AHT"aren logika zentralizatzailea alde batera utziz.
- c. Merkantzien trenbidezko garraioaren salbatze eta garatzea.** 2000 eta 2010 urteetan, Frantses estatuan bitan zatitua izan da, Alemanian %50ez goititzen zelarik. Gainbehera horrek beti segitzen du. Gaur egungo Fret SNCF planak, enpresa ttipi eta ertainen beharrei eta lurraldearen gune ezberdinetako beharrei hobekien erantzuten dien merkantzien garraioa trenez antolatzeko den bagoi bakartiaren aktibitatea baztertu nahi du, %60a alde batera utziz. Trenbidezko merkantzien garraioa berpizteko, burdin bidezko sarearen kalitatea hobetu behar da eta trenbidezko kalitatezko garraioaren zerbitzu publikoa indartu bolumen batzuk segurtatuz. Horrez gain, garraio konbinatuak eta garraio ezberdinen arteko gurutzagune plataformak behar dira sustatu eta indartu molde argi bezin eraginkorren.
- d. Ibai garraioaren garapena.** Garraio molde honek errepideko garraioak baino 5 aldiz BEG gutiago eta 2,5 aldiz CO2 gutiago isurtzen du.
- e. Pertsonen garraioan intermodalitatea lehenesten duen politika boluntarista bat** trukatzeko multimodal poloak plantan ezarriz pertsonen joan etorriak lurraldeko leku guzietan baldintza onenetan egin daitezkeela laguntzeko. Hiriko, hirien arteko garraio publikoen eta molde aktiboen (oinezko ibilketa eta pirripita) antolaketa arrakastatsuak datorren garraio politikaren helburu nagusi bat izan behar du.

Bai

Ez

Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....

Oharrak :.....

.....

.....

11) Karbono eta energia gutiago xahutzen duen garraio politika bat jartzeko diru baliabide egoki eta koherenteak plantan jartzearen aldeko zirea, besteak beste ondokoa erabakiz:

- a. Garraioei beren kostu osoak ordainaraziz (kanpo kostuak, istripulogia, kutsadura, kongestioa...).**
- b.** Horretarako, klima energia eta kamioien eko-zorra tasaren gisako zerga neurri batzuk plantan ezarri behar dira bai eta errepide eta aireportu sarea lehenesten duten laguntza publikoak kendu.
- c. Errepide eta aireko garraioak gozaten dituen tasa dispentsak eta beste zerga abantailak bertan behera utzi** (kerosenarako tasa dispentsa bezala, oro har 3,5 miliar euro urtean).
- d. Errepide eta aireko garraioari molde alternatiboak lehenetsi:**
- e. Frantziako garraio azpiegituren finantzatze Agentziari (AFITF/FGAFA) beharrezkoak diren baliabideak eskainiz** errepide eta airekoari alternatibak diruztatzeke klima energia ekarpena edo errepide eta aireko garraioari aplikatu beste zerga berezien mozkinen zati bat esleituz.
- f. Trenbide sareko eta tokian bereko garraio publikoen (TCSP/TBGP) birsorkuntzaren finantzatzea emendatuz:** Grenelleren baitan iragarri diru bideraketak eskasak dira.
- g. Pirripitaren praktika lehenesten duen zerga sistema bat lehenetsiz** pirripitaz egiten diren etxea eta lanaren arteko joan etorrien fresen ordainketaren bitartez, Belgikan eta Herbeheretan jadanik egiten den gisara.

- Bai
- Ez
- Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....
Oharrak :.....
.....
.....

12) Bordele-Hendaia AHT linea berri baten sortzearen aurka ote zara eta honetarako zuzenduak ziren diru fondoek zati bat errepide hutsari hurbileko alternatiben garapenari (hurbileko trenak, autobusak, pirripita, intermodalitatea...) zuzentzearen aldekoa ?

- Bai
- Ez
- Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....
Oharrak :.....
.....
.....

Pleita eta bidaiari trafikoei buruzko ikerketa tekniko gero eta gehiagok erakusten dute AHT berri baten beharrik ez dela. Garapen ekonomikoari buruzko unibertitate ikerketa gero eta gehiagok erakusten dute korrelazio eskasa honelako garapena eta AHT baten eraikuntzaren artean. Aginte administratibo gero eta gehiagok Bordeleren hegoaldeko AHT-ren emankortasun eza erakusten dute (CGEDD, Kontuen Gortea, CESE ...). Lekuka, ACBA gero eta tapatuagoa da, euskal kostaren Ipar-Hego ardatzaren gaineko joan etorriak saturatuak dira. Itsasbazterra eta barnealdearen arteko garraio publikorik batere ez da kasik. Datozen urteetan Iparraldean eraman beharko liratekeen inbestimenduak izugarri handiak dira. Alta, Tours – Bordale linearen diruztatzea eskualdea, departamendua eta ACBA-ren partetik, gisa horretako inbestimenduak agortzen ditu, Estatuak tokiko kolektibitateei eskaini diru laguntzak azkarki murriztuko direlarik heldu diren urteetan, krisitik ateratzeko perspektibarik ez baita iragartzen.

13) Ipar Euskal Herrian Garraioen Aginte Antolatzaile bakarra sortzearen aldekoa ote zara ?

- Bai
- Ez
- Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....
Oharrak :.....
.....
.....

Iparralde eremuan, GAA (Garraioen Aginte Antolatzaile) bakar bat ez izateak (erran behar da gisa honetako GAA batek bortxaz barne lituzkela Tarnose, eta behar bada Saint-Martin de Seignanx eta Ondres ere zeren ACBA/ AIBH hirigune esparru berekoak dira) garraio publiko koherente, eraginkor eta erakargarrien garapena arrunt kaltetzen du. Tokiko eragileek aho batez ohar bera egiten dute. GAA bakarrak tokiko TER + barnealde-itsasbazter autobus + AIBH autobusa + herrietako pirripita eskuragarrietarako txartel bakarra plantan ezartzea handizki erraztuko luke. Ahal handiagoak lituzke gisa honetako prezio eta txartel politika komun bat garatzeko, baina ordutegiak, garraio moldeen kontabilitatea eta tokiko mailan multimodalitatearen garapena koherentzian ezartzeko ere, bai eta bidaiari bakarreko autoen politikari, alternatiba desberdinak eta egiazko komunikazio politika orokorra eskainiz.

VI) BEG gutiago isurtzen duen laborantza eredu baten garapena:

Etxaldeetan isuriak diren BEG-en isurketa zuzenak, %20koak dira Frantses Estatuan. Isurketa ez zuzenak (sargaien fabrikazioa, eraldaketa industriak, garraioak, etab.) beste sail batzuetan kontabilizatuak dira. Laborantza beraz isurtze sektore garrantzitsua da, besteak beste energetikoak ez diren bere isurketen bitartez (nitrogeno protoxidoa – N₂O eta metanoa – CH₄).

Laborantza intentsiboa eta industrialia da BEG isurketen postu honen arduradun nagusia. Bestalde, gero eta arazo gehiago sortzen ditu: uraren kutsatzea pestizida eta nitratoen bitartez, lurzoruen higadura, bioaniztasunaren gibelatzea, laborari enpleguen desagitea, etxaldeak eskualdatzeko ezintasuna kapitalizazioaren maila handiarengatik, kostu energetiko gero eta jasangaitzagoa, zenbateko ahalkegarritzko laguntza publikoen atzitzea, etab... Onura publikokoa da laborantza hau herri laborantza iraunkorra eta laborantza biologiko bati buruz berriz bihurtzea, lanpostuak sortzen dituena, energia eta sargai gutiago xahutzen dituena, laborarien autonomia errespetatzen duena, osasun eta gustu kalitatezko elikadura ondasunak ekoizten dituena, izadia eta bioaniztasuna errespetatzen dituena.....

14) Laborantza intentsibo eta industrialetik laborantza herriko edo biologikora pasatzen lagunduko lukeen plan baten martxan ematearen alde ote zira ?

- Bai
 Ez
 Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....

Oharrak :.....

.....

Laguntza tekniko eta finantziario baten forma hartuko luke, baserriak, sozialak, ekonomikoak eta ingurumenaren errespetuzkoak diren helburu zehatz batzuetara hel ditezten. Klima Energia Ekarpenako irabazien parte batek luke plan hori finantzatuko.

15) Nitrogenodun onkailuen erabilpena ttipituz NO₂ isurketen menperatzearen politika baten alde zirea (*) ?

- Bai
 Ez
 Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....

Oharrak :.....

.....

Hortarako, ikuspuntu bikoitza beharrezkoa da: Galdearen mailan arizan behar da, mineral jatorrizko nitrogenodun onkailuen kontsumoa zergapetuz haien erabilpena ttipitzeko (sortzen duten N₂Oaren kopuruen proportzioen arabera, GIEC-aren kopuru orokorren metodo klasikoa jarraituz) eta hedatu eta sustengatu leguminosoen erabilpena (leguminosoa: aireko nitrogenoa harrapatzen duen landarea, bere haztearentzat ez duena nehongo nitrogenodun ongailu beharrik eta hurrengo landareentzat nitrogenoaren erabilerratasuna handitzen duena zoruan) Estatu mailako proteina plan baten bidez, eta PACaren erreformarendako negoziazioetan belardi iraunkorren babestea eta espezie ugartako belardien plantan ezartzea sustengatuz.

(*) Nitrogenodun onkailuen erabilpenaren murriztea desmartxa "irabazle-irabazle" bat da, praktika alternatiboak bultzatuko dituen eta ingurumenaren aldeko egiazko ko-benefizioak ekarriko dituen :

- Zoru pestaketak eta landa aldaketak dibertsifikatu biodibertsitatea sustatzeko, xomorro eta eritasunei erresistentzia handitzeko eta aldaketa klimatikoeri egokitzeko laguntzeko.
- Proteina ekoizpena berlokalizatu hazkuntzaren elikadura autonomia hobetzeko (Frantzia munduko lehen soja inportatzailea da, kabalen elikadurarako diren "pats" edo "zapakin"en %26 bakarrik ekoizten du.)
- Nitratoen uraren kutsatzea murriztu eta ongailu mineralen ekoiztearengatiko CO2 isurketak ere.

16) Ipar Euskal Herrian laborantza herrikoi eta iraunkorra sustatzen duen Euskal Herriko Laborantza Ganbararen ezagupen ofizialaren (Estatuaren partez) alde ote zira eta momentuz osoki Paueko "Chambre d'Agriculture"ari joaiten zaizkion EHLGri dagozkion finantzaketa publikoen eta fiskalitatearen parte EHLGri emaitzaren alde?

Bai

Ez

Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....

Oharrak :.....

.....

.....

VII) Hiri hedatzearen kontrako borroka planifikatu bat :

Gaur egun, ingurune naturalek eta laborantzarako lurrek departamendu baten batz besteko azalera galtzen dute 7 urte guzietz. Aldiz, 1992 eta 2003 artean departamendu baten azalera 10 urtez galtzen zen. Alta, ageriko helburua Grenelle eta laborantzaren modernizazioaren legeen arabera artifizializazioaren arrastipitzea da (erdiz ttipitzeko helburua hemendik 2020ra).

Hiri hedatzearen ondorio bistakoenetako bat zoruen artifizializazioa da, jakinik hedatze hori eremu kontsumitzaile handia den eta usu etxe bakarti indibidualen eraikitzearekin gautzen den kontrol gabeko hiri inguru hurbiletako garapena dela. Horri gehitzen zaizkio bereizketa funtzionala (bizitokiaren, lanpostuen eta zerbitzuen banaketa, eremuan) eta eremu segregazioa (hiri zentroaren burgestea, erdiko klaseak hiri inguruetaraztea eta klase pobreenen ghettoizatzea).

Fenomeno hauen batuketak berotegi efektuzko gas anitz ekoizten ditu, bereziki jendearen mugimenduak emendatzea ondorioztatzen duelako (bizitokiaren inguruan 80-100 kilometroko erradio batekin). Aldaketa hauek eremuek aldaketa klimatikoekiko duten ahuleziaren emendatzea ondorioztatzen dute: biodibertsitatearen hauskortzea eta laborantza lurren guttitzea, egokitzeko gaitasun bat atxikitzeke lur horien mantentzea beharrezkoa den bitartean; zoruen artifizializazioarekin uholde arriskuen emendatzea, etab.

Ezinbestekoa da lurraldearen antolaketari buruzko politikak eta neurriak erreformatzea, hiri hedatzearen kontrako borroka lagundu dezaten – eta ez alderantziz.

Laborantza eraikuntza eta lurraldeak mantendu behar dira eskualdeen elikadura subiranotasunaren bidetik joaiteko eta pentzetik platerera jakiei milaka kilometro eginarazten dizkieten kontsumo eta produkzio sistemen kontra joaiteko.

17) PLU-ren egitearen kompetentzia herri elkargoari pasatzearen alde zirea ? *Lehen denbora batean herriak finantza mailan animatuz bide horren hartzerat, adibidez "bonus" baten bidez finantzaketa emaitza orokorretan...kompetentzia transferentzia hori 3 edo 5 urteren buruan nahitaezkoa bilakaraziz ?*

- Bai
 Ez
 Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....

Oharrak :.....

.....
.....

18) PLU-en aurkezpenerako txostenean egiazko lur-estrategia baten integratzearekin ados zirea?

- Bai
 Ez
 Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....

Oharrak :.....

.....
.....

Gaur egun, eraikitze beharren arabera eraikigarriak bilakatuak izan diren eremuak anitzez gehiegizkoak dira. Adibide gisa, Baionako hirialdea/ Landeseko hegoaldea SCOT lurraldean (48 herri), orai eraikigarri diren eremuekin aski eremu litaike heldu diren 40 urteentzat oraiko eraikitze erritmoarekin, intentsifikazio indarrak egin gabe, ez eta jada badena berrerabili gabe.

Azken 10 urteetan, Euskal Herrian laborantza lurraldeak Frantzia mailan baino 3 aldiz azkarrago ttipitu dira, bereziki egiazko beharretarik deskonektatuak eta gaizki koordinatuak izan diren bizitoki eta aktibitate guneen eraikitzeagatik.

Egiazko eraikuntza beharrak konduan hartuko dituen urbanizatzeko koherente bat aurreikusiko duen eta laborantza lurraldeak aintzat hartuko dituen (eta ez lur-erreserba sinple bat bezala) benetako lur-estrategia plantatzea da erronka.

Horretarako behar litaike :

- PLU aitzin laborantza aktibitatearen lekuko diagnostiko zehatz bat egin
- oraingo hirian badiren bizitoki hutsak eta eremu eraikigarriak erabili, eta direnak berritu behar baldin bada
- mugimendu/toki aldatze politikak eta aktibitate-bizitoki-aisialdi oreka helburuak kontuan hartu lurralde antolaketa proiektuentzat
- eraikuntza tradizionalak errespetatzen dituzten eraikuntza kolektiboak ugaritu, baita herrixketan ere
- laborantza lurralde eremu eraikigarrietatik kendu, lur horien zatikatzea eta prekarizazioa ttipituz
- azkenik, behar baldin bada, hiri hedatze ekonomo, dentsio/trinko eta mistoari bidea uztea, baina beharrak gainditzen ez dituen heinean (lur eremu atxikipenik gabe).

19) Lur eremuei buruzko estrategia honen plantan ezartzeko hainbat tresna legal edo fiskal badira. Nahi zenituzkea indartu, bereziki PPEANP/HLNEBP (Hiri inguru hurbileko Laborantza eta Natura Eremuen Babes Perimetroa) baten bidez edo CDCEA/LEKDK (Laborantza Eremuen Kontsumoari buruzko Departamenduko Komisioa)ren indartzearen bidez ?

- Bai
 Ez
 Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....

Oharrak :.....

.....

.....

- Eraikigarri bezala kontsideratuak izan diren lurren gainean den gainbalioari buruzko tasen indartzea.
- Etxebizitza hutsen gainean den tasaren orokortzea
- EPFL Pays Basque-aren indarraren handitzeko, bere gaitasuna laborantza eremuetarat eramanez, tokiko kolektibitateen probetxuko.
- ZAP/LGB (Laborantza Gune Babestuen) plantan emaita sustatu
- PPEANP/HLNEBP-k (Hiri inguru hurbileko Laborantza eta Natura Eremuen Babes Perimetroak) garatu
- CDCEA/LEKDK (Laborantza Eremuen Kontsumoari buruzko Departamenduko Komisioa) indartu. Onartua izan den SCOT baten baitan, bere pribilegioak PLUen arloan luzatuz.

VIII) 60 urtetan erretreta hartzera itzuli eta lan denbora ttipitu :

Bi metodo nagusi badira langabeziaren arazoa konpontzen entseatzeko Pôle Emploi-n 4 milioi izen emaita bezalako errekorrak badirenean.

Lehena litaik existitzen den lana partekatzea hilabeteko, urteko edo bizi profesional osoko bat az besteko lan denbora ttipituz. Ekoizpen orokorra kasu horretan berdina egonen litaik baina aberastasuna berdintasun eta efikazia gehiagorekin banatua da denen artean.

Bigarrena litaik ekoizpen orokorra emendatzea lan kantitatea emendatzeko eta hola lana emaitako langabezian direnen pertsoneri, aberastasun emendatua langile guzien artean partekatuz. Baina metodo horrek planetaren muga du (jada helduak gira muga horretara), eta metodo posiblea litaik bakarrik energia infinitua eta berotegi efektu gasak eta beste hondakinak biltzeko gaitasun mugagabea lukeen mundu batean, bigarren metodo honen ondorioak baitira ekoizpen emendatzeak sortzen dituen hondakinen handitzea eta beraz energia kontsumoaren emendatzea.

Ez gira mundu horretan bizi. Orduan, logika arduragabe horren jarraitzeak katastroferantz eramaten gaitu, errekkienik bildu daitezken energiak ustiatuz eta planetaren beroketa eraginez, 2050tik goiti ezin itzulizko aldaketa klimatikoa izaitea arriskatzen duena.

Bizi!-rentzat, soiltasun energetikoarekin eta ezinbestekoa den berotegi efektu gasen isurtzearen apaltzearekin bateragarria den bidea bakarra da, lana eta ekoizturiko aberastasunaren partekatzearena.

Hautatua baldin bazira 2012ko ekainean :

20) Erretreta 60 urtera itzultzea sustatuko al duzu?

- Bai
 Ez
 Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....

Oharrak :.....

.....

.....

21) Urteko eta hilabeteko lan denboraren ttipitzearen aldeko aitzinamenduak defendituko ote dituzu?

- Bai
 Ez
 Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....

Oharrak :.....

.....

.....

IX) Zaharkitze programatuaren kontrako lege bat:

Zaharkitze programatua prozesu bat da non ondasun bat zaharkitua bilakatzen den erabiltzaile batentzat ondasun edo gauza hori ez baita gehiago "modan" edo ez baita gehiago erabilgarri.

Estrategia hori enpresetarik planifikatua eta programatua da, eta biziraupenaren laburtzea produktuaren asmatze eta sorkuntzatik pentsatua da. Horrek etengabe sortzen du kontsumitzailean ondasun berrien erosteko behar zehatza (makina ez dabil gehiago) edo beharraren sendimendua (makina ez du gehiago gustukoa). Horren ondorioz gertatzen den energia xahutzea baliogabeko gain-kontsumitze horren heinekoa da, bai eta berotegi efektuko gasen isurketa ere.

Produktuen biziraupenaren ttipitzeko bada zernahi teknika. Zaharkitze teknologikoan barne sartzen dira tresna baten bizi bukaera aitzinatzeko diren metodo tekniko guziak. Panan erortzen diren edo aberia ezagutzen duten makinaren erdia baino guttiago ez dira erreparatuak : %44 ADEMEIn inkesta baten arabera.

Aldatzeko behar diren elementuak beti zailak dira atxemaiteko eta karioak. Kritikatzekoa da ez dela pieza solteen eskuragarri ezartzeko behartzerik (auto eta motoen arloan bezala) eta araudiak (kontsumoaren kodigoak) doi-doi behartzen duela informazio bat emaiterat pieza ezberdinen eskuragarritasunaren epeei buruz.

Teknologia handiko anitz produktu desmuntagaitzak edo ezin desmuntatuak dira. Horrek haien erreparatzea zailtzen du. Eta jada argi utzia izan da etxeko elektronika tresnetan, gaur egun merkatuan atxemaiten direnetan, zonbaitzu plastikari berean moldatuak direla eta ezin direla desmuntatu ez eta konpondu ere.

22) Gauzen zaharkitze programatuaren kontrako lege baten alde zirea? Lege horrek besteak beste ahalbidetu lezake:

Ekoizleei ekoizkinen biziraupenaren afitxatzea inposatzea. Zonbait produktuk (kontsumo apaleko lanparek bezala) jada zehazten dute beren biziraupena. Gainera, industrialek biziraupen hori ezagutzen dute, ondorioz estrategia komertzial baten puntu garrantzitsua da. Produktuaren gainean edo haren gain-estalkian produktuaren biziraupenaren agerrarazteak bezeroari parada emaiten dio ohartzeko zein den bere produktuaren kostu orokorra eta ez bakarrik pentsatzea unitateko kostuari (erosteko mementoan). Afitxatze hori lehenetsunez deklinatua izanen da azken 10 urteetan gehienak saldu diren produktuentzat.

Kontsumo ondasunen gaineko bermea 10 urtetarat luzatzea. Legezko bermea, gaur egun fabrikatzaileentzat urte batekoa dena, 10 urtetarat beharko da luzatu erdi-iraunkor eta iraunkorrek diren ondasunentzat. Horrelako luzapen batekin egileek beharko dituzte produktu iraunkor batzuk sortu, konpontzen ahalko direnak, tokiko eta kalitatezko industria baloratuz. Ondorioz, fabrikatzaileek beren hornitzaileei kalitatezko osagaiak beharretsiko dizkiete.

Konpontzea sustengatu. Konpontzeari lotuak diren ofizioak, bereziki ofizialeenak, lanjerrean dira. Altabada, trebetasun bat ordezkatzeko dute, anitz lanpostu eta gure jendartearen memoriaren atal handi bat. Behar da ondorioz:

- Ezin konponduak diren produktuen komertzializatzea debekatu.
- Fabrikatzaileei inposatu pieza solteen arrazoizko prezioan eskuragarri ezartzea produktuaren biziraupenaren denboran.
- Konpontzearen kostuak ttipitzea :
 - a. %5,5eko BEZ baten plantan emanez konpontzeko eskulanen kostuen gainean;
 - b. kargu sozialak ttipituz;
 - c. kontsumitzaileentzat, konponketaren kostuaren desfiskalizatze partzialaren bidez.Horrek "lehiakorrigo" bilakaraziko luke konpontzea, produktu berri baten erostearekin konparaketa egiteko unean. Alabainan, konpontzeari gehien kalte egiten diona da, arlo hortako profesionalen arabera, bere kostu oso garestia.

Publizitatea mugatu

Publizitateak eremu publikoa inbaditu du (hedabideak, paretak, kartelak, gutun-ontzietako inprimakiak, etab.) bai eta arlo pribatua ere (publizitate mailing-ak eta sms-ak, etab.) molde ezin onartuzkoan. Botereek behar dute azkarki mugatu publizitate seinale erraldoiei eta autobus geldiuonetako publizitate karteiei uzten zaien tokia, eta osoki debekatu, pantaila elektronikoak gune publikoetan. Azkenik, publizitateen edukien kontrola bera ere beharrezkoa da, beren mezuen anbigutasuna eta hartzaileen manipulazioa saihesteko. Publizitate mezuek, informatiboak baizik ez dute izan behar.

- Bai
 Ez
 Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....

Oharrak :.....

.....

X) Berria eta beharrezkoa den zaborren politika bat

Zaborren kudeaketa hainbat erronka ekologikoren gurutzagunean kokatua da: besteak beste ondasun naturalen guttitzea eta beroketa klimatikoa. Erraustegiengatik urtero isurtzen diren CO₂ kopuruak 10 milioi tonatara iristen dira. Zaborren lurperatzearen papera frantses Estatuako metanozko isurketetan %13a da. Frantses Estatuak lortzen balu alemaniar Estatuaren gaur egungo birziklapen tasa, hesten ahalko luke bere erraustegi eta zabortegien erdia.

Bizilk gomendatzen du Zero Zabor desmartxa, hots eredu zirkular bat: berriz erabiltzen edo birziklatzen ahal diren ondasunak fabrikatu, hondakinak gehiago bereizi, segurtatu haien birziklapen/konpostatzea, eta, beti galtzeak direnez, ttipitu ondasun materialen ekoizpen globala, erroitik borrokatu gain-estalki gehiegikeriak bai eta objektuen zaharkitze programatua, etab.

Desmartxa honek badu bere ezaugarrietan "atez ate sailkako bilketaren" plantan ezartzea (plastikoak, berinakiak, paperak, hondakin organikoak, etab. bilduak dira bakoitza bere aldetik). Atez ate sailkako bilketak bi ondorio dituelarik:

- birziklapen tasa pasatzen dela %20/30etik, % 80/90era, Usurbilen, Iparraldetik 30 km-tan, gertatu den bezala ;
- sistema hortarik ateratzen diren konpostei bermatzen die frantses eta europar mailako kalitate normen (gaurkoen eta biharkoen) errespetua.

23) Legeen bidez jatorrian zaborraren murriztearen behartzearen alde zirea (gehiegizko gain-estalkien kontra eginez, gain-estalkien kontsignatuaren printzipioa garatuz, plastikozko zakuen debekatzea, zaharkitze programatuaren kontrako neurriak hartuz,...) ?

- Bai
- Ez
- Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....
Oharrak :.....
.....
.....

24) Bilketa tasa egokitu eta motibatzaile baten plantan ezartzearen alde zirea, jokamolde bertutedunak, berrerabilpena, konponketak, birziklatzea eta konpostatzea laguntzeko ?

- Bai
- Ez
- Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....
Oharrak :.....
.....
.....

25) Atez ateko gaikako bilketaren plantan ezartzearen alde zirea (plastiko, berinaki, paper, hondakin organikoak, etab. bakoitza bere aldetik bilduz) ?

- Bai
- Ez
- Iritzirik ez

Beste jarrera bat:.....
Oharrak :.....
.....
.....

Eskertzen zaituztegu zuen arretaz beteriko irakurketaz, zuen interesa erakutsirik funtsezko galdera hauekiko gure eta gure haurren geroarentzat.

Aitzinetik milesker zuen erantzunak emailaz info@bizimugi.eu helbiderat igorririk berantzenik ekainaren 5eko edo gutunez "Bizi, Cordeliers karrika 20, 64100 Baiona" helbiderat ekainaren 4a aitzin.

Erantzunen sintesiak lagunduko gaitu ere hautagai bakotzak energia eta klima bezalako gai garrantzitsuei buruz zer jarrera duen molde globalean ulertzen. **Erantzun horien balorazio globala hautesleei ezagutaraziko diegu Legebiltzarrerako lehen itzulia aitzin, bai eta lehen eta bigarren itzuliaren artean ere.**



Cordeliers karrika, 20
64100 Baiona Tel: 05 59 25 65 52 / 06 14 99 58 79
info@bizimugi.eu / www.bizimugi.eu